

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko, kostu desberdinak izango ditugu, eta garrantzitsua da horiek ondo kontrolatzea.

Hasieran, enpresa aurrera ateratzeko beharrezkoa izango da hasierako inbertsio gisa ordenagailuak erostea gure enpresa app baten bidez funtzionatzen duelako.

Lehenik eta behin, kostu finkoak daude: adibidez, alokairua, baina guk lokal merkeago bat bilatuko dugu kanpoaldean gastuak gutxitzeko. Bestalde wifi-a telefono-konpainia ezberdinekin konparatuko dugu aukera merkeena aukeratzeko. Horretaz aparte, teknikariak izango ditugu gure aplikazioa kontrolpean izateko arazoan aurrean bereziki.

Bestetik, kostu aldagarriak izango ditugu. Gure kasuan ez ditugu kostu aldakorrak baina kostu aldakor bat izango bagenu gure zerbitzuaren hazkundearekin lotutakoa izango zen. Gure zerbitzua hazten bada izan liteke teknikari baten bat gehiago kontratatzea eta hori izango zen kostua.

Kostu zuzenetan, gure enpresaren aplikazioa sortzeko beste enpresa bat kontratatzearen kostua, eskainiko dugun zerbitzua kudeatzeko zuzenean sortzen diren kostuak

Kostu zeharkakoetan, berriz, mantentzea, altzariak edo ordenagailuak eta programa informatikoak bezalako gastuak sartzen dira, ez direlako zuzenean gure produktu nagusian erabiltzen. Bestalde ere hilero ordaindu beharreko elektrizitatea, wifi-a edo bestelako energia zerbitzuak.

Kostu sozialetan, gure proiektuak kutsadura gutxitzea bilatzen duenez, ez dugu kanpo-kostu negatiborik sortuko; kontrara, gizarteari onura ematea da helburua.

Etorkizunean, barne-hazkunde estrategiak erabiliko ditugu, adibidez Ansoff matrizean oinarrituta: produktuak hobetzea, aplikazioan berrikuntzak egitea edo zerbitzu berriak eskaintzea, hala nola gure bezeroei kotxe bat uztea edo alokatzea.

Halaber, eskala-ekonomiak lortu nahi ditugu produktu gehiago eginez/ zerbitzu gehiago eskaintzen batz besteko kostua gutxitzea eta hedapenekonomiak (zerbitzu ezberdinak eskainiz kostuak murriztea).

Guk kostuak murrizteari emango diogu lehentasuna: lokal merkeagoa aukeratu dugu, ordenagailu sinpleagoak erabiliko ditugu eta elektrizitatearen kontsumoa gutxituko dugu; beti kalitate egokia mantenduz.

Azkenik, salmentak handitzeko, gure zerbitzuak balio ona eskainiko du: kotxez joatea erosoagoa da metroa erabiltzea baino, eta gure prezioak beste enpresek baino merkeagoak izango dira. Horrela, bezeroei aukera erakargarri bat emango diegu, eta horrek gure salmentak handituko ditu

